

berke

2003ko IRAILA,
14. ZENB. DOHAINIK

Zumaiarrak 36ko gerran

Garai gogorak
herritar askorentzat

Hemen gara berriz ere!!

Abuztuko oporrak ahazten saiatzen hasi orduko, danba! iraileko Baleike prestatzen hasi behar. Hori da hori kolpetik lurrera erortzea.

Hala ere, kolpe guztiak horrelakoak balira...

Hemen duzu, esku artean, opor ondorengo aurreneko Baleike. Aldaketa handirik ez dugu egin. Oraingo, ez behintzat. *Aluga-se* alokatzen zigunak itzulerako operazioa egin, eta Lisboatik Bilbora etorri da Oikiatik barrena. Aldameneko laguna zuen *koadrillen bueltan* ere isildu zaigu. Oraingo ez ditugu ordezkatu, baina kaskoan badiugu zenbait ideia. Badakizu, denbora kontua...

Bestelakoan, gainontzeko atalak igualtsuak dira. *Atia irekita* duzu aldizkaria ikusteko. Sartu eta lehenengo gelan ze berri galdera egin, eta erantzun batzuk jasoko dituzu. Besteak beste, ikasturtearen hasierak emango dizuna. Galdetu, galdetu gehiago, erantzunak badiara- eta.

Gela hori lagata, ezkerreko aldera joz gero, *ur haunditan* sartuko zara. Zaila badirudi ere, *jardunian* ere bertan egin



ahal izango duzu. Oraingoan biak gai berari buruzkoak dira. 1936ko gerrak Zumaian utzitako ondorioak aztertu ditugu *ur haunditan* sartuta: kanporatuak, fusilatuak... Frontean ibili ziren zumaiaarrak ere izan ziren. Horietako bat Erramun Manterola izan zen. *Jardunian* aritu gara Euskal Itsas Armadan aritu zen Erramunekin.

Goiko pisutik jaitsi, eta beheko solairuan *inkesta* izango duzu. Zure zain. Bai, bai, zure zain. Inkesta egiteko era aldatu egin dugu. Orain arte gu zuregana joan izan bagara, hemen-dik aurrera zuk etorri beharko duzu guregana. Hilero-hilero galdera bat egingo dizugu, eta erantzunak e-postaren bitartez bidali beharko

dituzu. Hil honetako galdera ezagutu nahi baduzu, badakizu non aurkituko duzun...

Sukalderik gabeko etxea ez litzateke etxea izango. Gure sukaldetxora sartuta, *olarro zopa* gozo askoa izango duzu. Lapikoa gainezka egiteko zorian dago: bertsolaritza, sexua, dietetika, eta internet. Horiek bai osagaiak!!

Beheko solairu horretan bada gauza gehiago. Gela handi batean kirolariak sartu ditugu, eta hor dabilta *izerdi patsetan*. Ondo begiratuz gero, piraguitak, arraunlariak eta pilotariak aurkituko dituzu.

Motzean esanda, hauxe duzu iraileko prestatu dizuguna. Barrura lasai sartu. Zure aldizkarian zaude.

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Iñhitz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra sozial



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

SASIARTEKO KONTUAK

Gorka Cabello

BELDURRA ETA guzti eman dit nire gutunari erantzunez Jorge Oteiza "Quosque Tandem!" oihuka imajinatu dudanean!! Niri hainbat erakusketarekin gertatzen zaidan bezalaxe, Ismael Manterola Ispizuak ez zuen nik egindako galdera ulertu eta "noiz arte, zer?" galdetu zuen. Beharbada oker egingo nuen galdera eta egokiagoa zen "arte noiz?" galdetzea, baina ni ez naiz inor erakusketa baten iruzkin kritikoa egiteko eta labor-labor, agian laburregi, nire purrustadaxoa argitara eman nahi izan nuen, zenbait arteko (edo sasiarte) kontuk azkenaldian eragin didaten sentimendua adierazteko.

Arazoi du Ismaelek, ez delako erraza artea zer den eta zer ez erabakitzea, eta urteetan horretan diharduen irakasle bat azaltzera ausartzen ez bada, ez naiz ni horretan hasiko, ezta gure aita ere. Sentitzen dudana adibide batekin azaltzea izango dut onena, ordea; literaturarekin, esate

baterako. Inork gutxi jarriko du zalantzan "Obabakoak" liburu onadela, beste batzuei "El perfume" gehiago gustatuko zaien arren. Gutxiago ala gehiago gustatu, inork ez du lan horiek literatura direnik ukatuko. Baina, DVko eskela literatura da? Eta Eroskin erosi beharreko gauzen zerrenda? Eta telefono aurkitzea? Horrelako "testu" bat azkena argitaratutako liburutzat aurkeztuko baligute bezala sentitzen naiz "arte erakusketa" batera sartu eta zenbait proposamen ikusten ditudanean, engainatua. Artista eta kritikari batzuek artelanak nola azaltzen dituzten, hori bai izaten dela artea askotan!

Ismaelek ez du gogoko zezenketei buruzko Zuloagaren erakusketan koadroekin nahasian mantelinak eta soinekoak ikustea, Gara egunkariko zutabe batean adierazi zuenez. Esanguratsuak iruditu zitzaizkidan han jasotako zenbait esaldi (03-08-

30an): 1- "Erakusketak artean gainera zerbait baino gehiago edozein gauza zirudien". 2- "Ez zait gehiegi gustatzen trasteak kokatzea arte erakusketetan". 3- "Guztiok ordaindu behar baditugu, kalitate eta interes maila duen zerbait egin beharko dugu eta hori erakunde publikoen esku dago".

Ismaeli gertatzen zaion bezalaxe, nik ere ez ditut erakusketa batzuetako beste hainbat gauza atsegin eta ez zait iruditzen garai bateko irizpideekin baloratzen ditudalako denik edota jarrera itxiarekin agertzen naitzelako. Arte, sasiarte edota simaur pila dela eztabaidatzen hasi gabe, aitari eta bioi ez zaizkigu adierazpide horietako batzuk gustatzen, ulertu ala ez, eta beste zenbait lagunek ere antzeko iritziak agertu dizkidatenez, erakusketa edota artelan batzuen kalitatea eta interes maila gutxienez zalantzarriak iruditzen zaizkit, besterik ez.

Torpeduak Oikian

Israelen, Iraken eta munduko beste hainbat tokitan minak, misilak eta era honetako "jostailuak" erabiltzen ari diren garai hauetan, aurten Oikiako SanBartolometan "torpeduak" izan ditugu nobedade, benetan suntsipen handiko arma bat.

Fabrikatzeko punta-puntako teknologia erabili da, Oikiako laborategi klandestinoetan goi mailako ingeniari errusiarrek ibili dira lanean, torpedo txiki bezain indartsu hau lortzeko. Oikiako mafiak Errusiako mafiarekin dituen harreman onak medio hemen izan ditugu Emetterinean abuztu osoan.

Azaletik begiratuta ez zaie inolako gauza arrarorik antzematen, baina oliba oliotan sartu eta tenperatura altu batean jarri ondoren, jaki erakargarri eta goxoa dirudiena suntsipen

handiko "jostailu" bihurtzen da, batez ere zure aho eta ezarri aldearentzat. Makina bat aho bero ixildu zituzten preji-preji egindako torpedo berde haiek. Marka ere erregistratuta dago, ez Ibarrako langostinoak, ez eta Gernikako edo Lodosako piparrak ere : Oikiako Torpeduak eta kitto.

Urtero ekartzen digu San Bartolomek horrelako nobedaren bat, hurrengo urtean zer tokatuko ote da? Beno, dagoeneko urte bat baino gutxiago geratzen zaigu behintzat...



Ibon Aizpurua

Oporretako nagikeria kendu ezinda

EZIN KEXATU aurtengo udaraz. Eguraldia primerakoa (beroe-
gi aukeran), gure hondartzak zoragarri (galipot gehiegi aukeran),
itsasoaren egoera aparta, berdea izan baita banderatan nagusi
(surferoentzat bareegi aukeran), uraren tenperatura mediterraneo-
aren antzera (epelegi aukeran), beraneanteak tamainan (denda-
ri eta tabernarientzat gutxiegi eta zuhurregi aukeran), ...

Ezin kexatu aurtengo udaraz...Kexatu berriro ere irailean
kexatu behar...

Salneurriak gorantza etenik gabe, lanez gainezka etenik
gabe,...eta oporrak ze urruti ikusten diren! Egutegia begiratu
eta tarteko gorririk apenas!

Ederra gurutzbidea! Baina ezingo gara aurtengo udaraz
kexatu.

Kontsolatzeko okerrago daudenei
begiratzea bezalakorik ez dago, eta
egia esan, gu baino egoera kaxka-
rragoan makina bat bada: goseaz
hltzen ari da jendea 2003. urte-
an, gaisotasunari buelta eman
ezinda ere lagun asko dago
munduan, espetxean zer esanik
ez, gizon-emakume burugabeen
erruz gerra giroan murgilduta
beste hainbeste, langabeziaan...
Beraz, ezin kexatu!! Ez aurtengo udaraz bakarrik; gure bizi-
moduaz ere ezin kexatu!!



Arritxu Iribar



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Euria ari baitu



Eneko Dorronsoro

Ez da hondartzan toailarentzat toki arazorik, ez paol bidean peregrinazio jendetsurik. Kasik amaitu dira aurtengo whereisthebeach? eta parairazaraute?ak. Ez da askoz

argazki kamara hots gehiagorik entzungo aurtengoz, euria ari baitu.

Eta bada euria ari duen bazter gehiagorik ere munduan. Etxera datozkigun giriei iseka egin ondoren trajebaño-argazkimakina-mapa kit-a hartzeko lotsarik izan ez dutenek bisitatutako lurraldeak. Han ere ari du, eta han ere toailek ez dute arazorik orain.

Euria hastean, etxean sartu eta barandila gaineko ttan-ttan hotsa lagun, ikusitakoak, oporretan bizitakoak ekartzen ditugu gogora. Hango hirien harrera, besteko jendearen goxoa...eta okerrenera ere, etxera itzultze hutsak ematen duen satisfazioak merezi izan du.

Eta eman digutena baloratzean ohartzen gara, guk ere eman dezakegunaz. Eta posible dela guk kanpoan bilatzen duguna besteek hemen aurkitzea. Ez baikara Gugenheim eta ETA bakarrik (aurten Realera ere sar genezake zaku hontan). Han ere hemen bezala, euria egiten baitu.

Ez zinen gehiegi bustiko Estitxu, ezta?

Tira, erreka-zokoak miatu ditut udan...

Estitxu Eizagirre



Baina ez naiz munduko beste bazterretako euriaren bila atera. Hemen bertan ibili naiz trajebaño-argazkimakina-mapa kit eta guzti. Txikitan ere horrelaxe pasatzen genuen uda osoa Zumaian, eta horrek "ikastolako lehen egunaren trauma" sorrarazten zigun. Irakasleak, beti galdera berarekin hasten zuen ikasturtea: "Nun izan zeate oporretan?" Korroan exerita, banaka banaka erantzun behar interrogatorioari.

"Zeinurrutirago" izeneko turismo bulego bihurtzen zen gela: "ni Cuban eta Errioxan" lehenengoak, "A, ni Cuban lehengo urtian izan nintzan. Aurtan Italian eta Andorran" bere ondokoak, "Ni Menorcan, Irlandan eta Parisen" nire ondokoak. Eta nik nire erantzuna ematerako, gela osoak batera korua osatuz: "ni ZUMAIAN!!!". Eta gero zetozen komentarioak: "urtero Zumaiara juten zerate, Zumaiaraino "bakarrik", inoiz Mutrikuko muga pasa gabe..." Primeran pasatu uda, beste gelakideek adina disfrutatu hondartzan, mendian eta jolasean, eta akomplejatu egin behar, "beti-kanpoko-hobe" horien kulpaz! Eta gauzak zer diren! Ume garai osoa pasatu nuen gurasoei kanpora ateratzeko plastada ematen, urrutiko bidaiekin ametsetan... Eta orain, 18 urteko muga aspalditxo pasata, nora joan pentsatu besterik ez, eta urtero gauza bera egiten dut: bertan gelditu!

Jendea ito egiten omen da hemen, herri txiki honetan. Ni lanean itotzen naiz, edo neure burua soportatu ezinda itoko naiz... Baina hemengo ingurua apreziatu eta gozatzeko ez dut problemarik. Eta orain, oporretatik bueltan koadrilan korroan exeri, eta betiko galdera egiten dugunean (alegia, "nun egon zeate?"), azken esaldia beti izaten da: "ba, hemen baino hobeto ez da inon bizitzen". Nik, ixilean, irripar zuhur bat egiten det: "banekien! Ikusten? Aukerarik onena egin det!".

Bueltatzeagatik joaten gara

Ixiar Eizagirre



Pertsona hain da animalia absurdua, beti bueltatzeagatik egiten duela joaneko bidaia: mendira igotzen da berehala jaisteko, etxetik alde egiten du gabonetan "El Almendro"ko anuntzioan bezain pozik itzultzeko, txikiteoan taberna batetik joaten da beste taberna batera sartzeko... Eta opor bidaia, gizakiaren beste erritual absurdu bat gehiago da.

"Urrutikoazkenpuntara" joaten gara, itzultzean etxea gustura hartzeagatik. "Hemen ze ondo bizi garen" frogatzeagatik geure buruari. Herri honetan, gure tripako min eta miseria guztiekin ere, ondo bizi baikara.

Madrileño kastizok hartzen duten disgustua horixe omen da, gainera. Igeldon nekazal turismoa duen batek kontatzen zidan.

Turista madrileño askori sumatu die Euskal Herrian miseria topatzeko gogo; gure eguneroko bizitza "tentsioz" bete imajinatzen dute, kale batzuetan sartzetik ere ez dagoela, kanpotarrekiko itxiak garela... Gerrako kazetariak balira bezala omen datoz horixe topatu nahian, euren buruari frogatzeko zeinen ondo

bizi diren Madrilan. Eta udan, Euskal Herriko edozein bazterretan aurkitzen dutena festak dira, kaleko bizitza, hondartza giroa, patxada, umorea. Eta horrek jada ez omen die hainbesteko graziaz egiten.

Tristea da nork bere herria baloratzeko, kanpora joan eta besteak gaizki bizi direla ikusteko behar hori. Zorionez, kanpoan ere pozik bizi dira.

ARO BERRI BAT ZUMAIako AEKn



Goizane da irakasleetako bat. Ikasturte berria noiz hasiko zain dago egoitza berria txukuntzen diharduten bitartean.

Hastear dagoen ikasturtean gauza asko estreinatuko dituzte. Egoitza, irakasleak eta zenbait ikastaro, berriak izango dira.

Ohikoak diren alfabetatze, euskalduntze eta EGA prestatzeko ikastarok ere emango dituzte. Horietan matrikulatzeko epea irailaren 11n irekiko da, eta irailaren 30ean itxi. Beste urteetan baino beranduago ipini dute izena emateko epea. Jendeak bukaerara arte ez du izenik ematen, eta gainera, egoitza berria prestatzen ari dira. Horra matrikulazio epea atzeratzeko motiboak. Ohiko ikastaro horiek urrian hasi eta ekainean bukatuko dira. Astelehenetik ostegunera izango dira klaseak, eta bi orduko

iraupena izango dute. Udalak, beken bitartez, diru laguntzak emango dizkie ikastaro horietan izena ematen dutenei.

Ikastaro bereziak

AEK-k eta Udalak lortutako hitzarmenari esker, hainbat ikastaro berri izango dira aurten: eskoletan gurasoen taldeei emango zaiena; herriko merkatariei zuzendutakoa; eta etorkinei eskainiko zaiena. Udalak arduratuko da ikastaro horien inprimakiez eta propagandaz. Udalak berak bideratuko ditu izena emateko lan guztiak. Gainera, ikastaro edo tailer horietan parte hartu nahi duten guztiei udalak berak ordainduko die ikastaroa. AEK-ko irakasleek emango dituzte ikasta-

rook. Aukera bikaina, beraz, ikastaro edo tailer horietan izena emateko. 20 ordukoak izango dira eskoletan gurasoei eskainitakoa, eta merkatarientzat prestatu dutena. Azaro aldera hasteko asmoa dute. Etorkinentzako ikastaroa nolakoa izango den oraindik ez dute erabaki. Udalak ari da horretaz arduratzen, eta etorkinen errolda egin arte ez dute erabakiko ikastaroak nolakoak izango diren.

Parte hartzeko deialdia

Zumaian azken urteetan asko jaitsi da ikasleen kopurua. AEKtik deialdi berezia egiten zaie euskalduntzeko, alfabetatzeko eta EGA prestatzeko asmoa eta gogoia duten guztiei izena emateko. Baita gurasoei, merkatariei eta etorkinei ere. Udalak eta AEK-k lortutako hitzarmenari esker aro berri bat hastera doa. Ea ikasle kopuruak ere gora egiten duen.

BULEGOKO ORDUTEGIA
(EGOITZA BERRIA AITA MARI
ZINEAREN ONDOAN DAGO,
HELDUEN HEZKUNTZARAKO
KLASEAK EMATEN DIREN
EGOITZA BEREAN)

Goizez: 11:00 – 13:00

Arratsaldez: 17:00 - 20:00



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantia
español
catalan
suomi basc
català finnois
français anglais
catalan française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

ALGORRI TABERNA
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

Abian da XVI. Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketa

Udaletxeak Kutxaren laguntzarekin Julene Azpeitia 16. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Literatur sorkuntza bultzatzea helburu duen lehiaketa honek aurtengoan bi berrikuntza izango ditu.

Orain arte egindako guztietan lanak aurkezteko epea irailaren 30a izaten bazen ere, aurtengoan urriaren 20a bitartean izango da euskaraz idatziriko ipuinak aurkezteko aukera. Beraz, norbaitek parte hartu nahi badu garaiz dabil oraindik.

Bestetik, sarietan banatuko den diru kopurua igo egin da. Oraingoan lehenengo saria 3.000 eurokoa izango da, bigarrenak 1.500 euro irabaziko ditu eta zumaia onenaren saria eskuratzen duenak 1.000 euro poltsikoratuko ditu.

Iazko edizioan guztira 25 lan aurkeztu ziren. Horien artean nabarmentzekoa da Zumaiarren partaidetzak izan zuen igoea. Bestetan, hiruzpalau zumaia aurkeztu baziren, azkenekoan zazpi lan izan ziren bertakoenak.

Hamabost urtetako lan sarituekin, hau da, 41 lanekin osatutako liburu bat kale-ratuko da aurtengoan.



Julene Azpeitia idazle zumaia-
oroimenez egiten da urtero ipuin
lehiaketa.

Parte hartzeko baldintzak

Lehiaketara aurkeztutako idazlanak euskaraz idatzita egon beharko dute, orijinalak izan eta argitaragabeak. Ezin izan dira aurkeztu beste hizkuntza batean

idatzi eta euskaratuak izan diren lanak. Idazlanen gaia librea da, eta gutxienez 10 horri izan beharko ditu. Azkenik, idazlanak onartua izateko, izenburua bakarrik eramango du agerian. Ipuinarekin batera, gutunazal txiki bat bidali beharko da, horren kanpoaldean lanaren izenburua jarritz, barrualdean, berriz, egilearen datu pertsonalak jarriko dira. Lanak udaleko euskara batzordera bidali beharko dira, Julene Azpeitia Lehiaketarako dela adieraziz.

Literaturaz

Aurtengoan bosgarren aldiz egingo da literatura hizpide duen tailerra. Udazkenean Jon Alonso izango dugu tailer honen gidaria. Aurreko urteetan Pako Aristi, Yolanda Arrieta eta Ana Urkiza idazleak izan ditugu herrian tailer honetan.

Literaturaren arloan tailerra ez da izango egingo den ekintza bakarra. "Gaur egungo idazle baten erronka eta arazoak" gaia ahotan harturik, Jose Mari Iturralde idazlearen hitzaldiaz gozatzeko aukera izango dugu.

ODONTOLÓGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI KLINIKA

Plazola de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74

Garrote
Rafael Insausti Elgoibar

INPERNUPE ELKARTEA

Erribera kalea Tel. 943 861523

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

kalari

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517

KABI
TABERNA - ZUMAI

Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, 2/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

Abuztuan bertso ugari

BALKOITIK BALKOIRA

Euskal jaiaren egitarauan barne bertsolariak saio berezia egin zuten. Sebastian Lizaso Kofradia aldeko balkoian zela eta Irazu beste aldean, elkarri zirenak eta ez zirenak esaten jardun eta saio polita eskaini zuten.



OIKIAN SAGARDOZ BUSTITA

Berotasunari nolabait aurre egin behar eta eztarria bustitzeko ez zen sagardorik falta izan San Bartolome bezperan Oikiako plazan. Sustrai Colina eta Jon Maia aritu ziren, trikitilarien laguntzarekin, postu batetik bestera joan, bakoitzeko sagardoa probatu eta zerbitzariak zirikatzen.



BERTSOLARIAK ARRAUNEAN

Iaz egindako proba gustatu eta aurten ere hainbat bertsolari etorri ziren Telmo Deuneko tostak probatzera: Egaña, Iturriaga, Arzallus, Colina, Lujanbio, Mendizabal, Murua... Itsasoan saio bat egin, ibaian gora joan eta ordubeteko jardunaren ondoren, hamaiketakoaren eta bazkariaren txanda etorri zen. Olagarroa eta txakolinak asko, baina bertso gutxi egun horretan.

AFARI MAGIKOA

Tokia ere halakoxea zen eta oso saio berezia eskaini zuten Andoni Egañak eta Maialen Lujanbiok Itzurungo hondartzan. Nahi baino geroago hasi ziren abesten, ia 120 laguni afaltzen ematea ez da lan-tegi makala eta. Zaparrada polita bota zuen hasieran eta lehenbiziko saioa bakoitzak toki batetik egin zuten: Maialen toldopean zela eta Andoni mahaian ondoan sonbrilla baten azpian. Egoera xeblebre hark bertsolari-ko gaia eman zuen behintzat! Bigarren saiorako, ordea, atertu zuen eta petrilean eserita abestu zuten, jendea beraiei eta itsaso begira zutela. Film luze bezain eder bat irudikatu zuten, habanera sorta eta guzti, ordu eta erdiko saioan eta jendeak gozatu ederra hartu zuten.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Oporrik luzeenak ere labur

Ia hiru hilabete oporretan egon eta gero, herriko haurrei eta gazteei eskolara bueltatzeko ordua iritsi zaie.

Zumaiako eskoletan, hasi berri den ikasturteari begira ez dago berrikuntza handirik. Matrikulazioari dagokionez, iazko kopuruen antz handia dute aurtengoek.

Herri Eskolan, lehengo urtean baino hiru haur gehiagok eman dute izena 2 urtekoen gelan. Beste gainontzean, kopurua iazkoaren parekoa da. Joan zen urtean etorkinek izena eman bazuten ere, aurtengorako etorkin berriak ez dute Herri Eskolan.

Oikiako Eskolan Lehen Hezkuntza osorik ematen dute. 2 urte dituztenean hasten dira umeak, eta 12 urte bete arte Oikian bertan ikasteko aukera daukate. Aurten 27 ikasle dituzte guztira, iazko kopuruaren antzekoa. Tartean dira Oikian bertan bizi diren bi senegaldar. Hasi berri den ikasturterako, eskolan bertan berrikuntza batzuk egin dituzte. Egoitza txukundu egin dute zenbait obra eginda. Eskola berria egiteko egitasmoa abian da, gainera. Udalak lurak erosita ditu dagoeneko. Baita Hezkuntza Sailari utzita ere. Orain lanak eman eta has-tea besterik ez da falta. Hala ere, ez dakite noiz hasiko dituzten eskola berria egiteko lanak.



Hemendik aurrera, umeak gutxiago ikusiko ditugu kalean

Maria eta Jose Ikastetxean zertxobait gora egin du matrikulazioak. Guztira 528 ikasle izango dituzte aurtengo ikasturtean. Etorkinei dagokienez, oraingoz bi dira izena eman dutenak. Berrikuntzen artean, hainbeste buruhauste sortzen ari den 0-3 urte bitarteko haurren eskolaratzea dute. Berrikuntza ez da, urte batzuk dar-matzatelako urtebete eta hiru urte arteko haurrak eskolaratzen. Berrikuntza eskolaurrea deitzen zaion arlo horren baldintzetan dago. Ordutegi eta egutegi berezia dute. Irailean eta ekainean goiz eta arratsalde izango

dituzte eskolak; Aste Santuan eta Gabonetan jai egunetan bakarrik izango dute jai; eta uztailean irekita egongo dira.

Beste berrikuntza bat ere azpimarratu digute. Nahiko berezia dela diote. Irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hobeto kudeatzeko egitasmo bat jarriko dute abian.

Zumaiako Institutuan iaztik aurtengora ez da aldaketa handirik. Joan zen ikasturtean baino 12 ikasle gutxiago izango dituzte. Ikasketei dagokienez, aurten ere jarraituko dute iaz hasi ziren erdi mailako zikloko elektrizitatea irakasten. Gainera, langileei zuzendutako enpresen mantendua izeneko ikastaroa aurten ere izango da. Goi mailako zikloaren barruan dagoen katalogo modularra deritzon ikastaro horrek bi urteko iraupena du. Iaz titulatu ziren, hain justu, ikastaro hori egin zuten lehen ikasleak. Titulu hori lortu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko lehen ikasleak izan ziren Zumaiako Institutukoak.

Bestalde, kexu dira institutuko arduradunak. Orain urte asko, gazte jende asko kanpora joaten zen batxilergo ikasketak egitera. Hemen ikas-keta horiek egiteko aukera egotea eskatzen zutenak, oraindik ere kanpora joaten direla diote. Horren kexu dira Zumaiako Institutuan.



Gertatzen dira horrelakoak

Aquanaut ontzia uretaratu ezinda arazo tekniko batzuenatik

Abuztuaren 29a. Arratsaldeko 6ak. Ohi-turari jarraituz, xanpain botila ontzia-ren kroskoan puskatu zuten. Ikuskizuna ikusteko bildu zen jendea irrikaz, ontzia behearantz noiz hasiko. Baina ontzia ez zen mugitzen. Atoi ontzien laguntza ere alferrikakoa zen. Ahalegi-naren ahaleginaz ontzia eta atoi ontzia lotzen zituen soka eten egin zen. Den-bora aurrera, baina Aquanaut geldirik. Beste saio bat egin zuten atoi ontziek, eta pixkat mugitu zuten ontzia. Azke-nean, etsiak jota uretaratzea bertan behera uztea erabaki zuten. Beste saio baten zain, lasai asko dago Aquanaut noiz uretaratuko itxaroten. Gertatzen dira horrelakoak.



Zer zegoen hor?

Parroki ondoko etxea berri-tzeko lanak egiterakoan, iru-dietan duzuen zuloa agertu da. Hutsik dago, baina ematen du, barruan garai batean irudiren bat gorde zuela. Noren irudia zen eta noiz-koa ez dakigu.



Lehen diskoa ateratzear



Karidadeko Bentaren lehen diskoa iraila bukaeran kalean izango da. Bertsoak oinarri hartuta, musika mota asko nahasten dituzte zumaierrek.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Erdi Eroa

Irailaren 6an alde zaharrak Erdi Aroko itxura hartu zuen. Pregoiak, bufoiak, orduko lanabesak... Orain mila urteko bizimodua ezagutzeko aukera izan zen. Jende asko bildu zen alde zaharrean.



ile-apaindegia

Maxi

Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamendu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00


ALTZARIAK OSTOLAZA ARROZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

GERRA ZIBILA ZUMAIAN



36ko irailaren 20an zubi txikia leherrarazi zuten nazionalak herrian sartzea eragozteko.



Zumaiar askok ihes egin behar izan zuten gerraren beldur. Beste asko kanporatu egin zituzten.

36ko gerrako Euskal Itsas Armadari buruzko erakusketa ikusi ahal izango da Alondegi Zaharrean irailaren 17tik urriaren 5era bitartean. Aitzakia paregabea 1936ko gerrak Zumaia nola astindu zuen gogoratzeko.

GERRA GUZTIEK krudelki jotzen dituzte tokian tokiko herritarrak. Era batera edo bestera, denei eragiten die. 36ko uztailaren 18ko altxamendu militarren ondorioz piztu zen gerra hark zumaiarrentzat kalte latzak ekarri zituen. Mota guztietako kalteak. Fusilatuak, kanporatuak, fronteetan hilak...familia asko eta asko erabat txikitu zituen gerra hark. Gerra guztiek bezala.

70 urte ere ez dira Espainiako Gerra Zibila piztu zela. Historiari buruz ari garela, urte kopuru hori ez da denbora.

Atzo goizeko kontuak dira, nolabait esatearren. Garai hartako gobernu errepublikarra botatzeko egin zuten altxamendua matxinoek. Nazionalistak ziren matxinoak. Nazionalista espainiarrak. Frankistak. Faxistak. Beraien buru, euskaldunok, zoritxarrez, ederki asko gogoratzen dugun Francisco Franco jenerala. Matxinoen helburua errepublikarren gobernuaren bazen ere, ederki astindu gintuen gerra hark.

Euskal Herrian Nafarroan hasi zuten matxinada. Mola jenerala buru zutela, berehala menderatu zuten erreinu zaharra. Araba ere azkar asko bereganatu.

tu zuten. Gipuzkoa eta Bizkaia mendean hartzeko arazo gehiago izan zuten frankistek.

Gerraren hasiera Zumaian

Gure herrira altxamenduaren albisteak iristen baziren ere, oso notizia nahasiak ziren. Zumaiaiek ez zuten uste, aurreko altxamenduek baino garrantzia handiagoa izango zuenik orduko hark. Oker zeuden. Lehen albisteak iritsi bezain pronto, herriko ezkertiarrek eskuineko ideologia zutenen atzetik abiatu ziren. Batzuk atxilotu, eta Udaleko kartzelan sartu zituzten. Gertakari horiek kenduta, ordea, herrian ez zen arazo handirik izan. 36ko uztailaren bigarren erdia, abuztua, eta iraila ia osoa lasai samar igaro ziren Zumaian. Garai latzenak iristeko zeuden.

1936ko irailaren 21a

Zumaiaiek sekula ahaztuko ez duten eguna. Espainiar nazionalistak herrira sartu, eta Zumaia beraien esku hartu zuten. Zumaiaiek, hala ere, azken ahalegina egin zuten herriari eusteko. Bezperako gauean, irailaren 20an, zubi txikia leherrarazi zuten espainiar nazionalistei bidea ixteko. Alfer alferrik. Gure herria etsaien esku zegoen. Orduan hasi ziren zumaiaiek gorriak ikusten.

Herria frankisten esku gelditu zela ikusita, eta haien errepresoren beldurrez, hainbat zumaiaiek alde egin zuten. Iheslari gehienak abertzaleak eta ezkertiarrek ziren. Eskuindarrek Zumaia bereganatu orduko, ospa egin zuten. Bizkaia aldera jo zuten ihesi. Beste asko, hala ere, Zumaian gelditu ziren. Horietako asko abertzaleak ziren. Abertzale eskuindarrak eta elizkoiak. Matxinoek borondate ona zutelakoan gelditu ziren... Denborarekin, bai damutu ere!! Berehala erakutsi zuten nazionalista espainiarrek euren



Iheslari gehienak emakumeak eta haurrak ziren. Etxea utzi, eta ia ezer gabe alde egin zuten.

FAXISTEK FUSILATURIKO PERTSONAK ETA DESAGERTUAK

IZENA LEKUA	JAIOITZA DATA	HERIOTZA LEKUA	HERIOTZA	ADINA	EGOITZA
AGIRRE GALLASTEGI, Pedro Julian	Elgoibar	1936-10-01	Meagas	24	Z umaia
AIZPURUA AZCUE, Tomas Nemesio	Zumaia	1937-04-09	Zumaia	58	Zumaia
AMILIBIA MUGICA, Francisco	Zumaia	1939-11-25	Zumaia	21	Zumaia
ANOAIN MIRANDA, Manuel Maria	Los Arcos	1936-09-24	Zumaia	21	Zumaia
ANTIA, Julian	Zumaia		Hondarribia		Zumaia
BASURTO QUEREJETA, Pedro	Zumaia	1936-09-03	Iruñea		Zumaia
BERISTAIN ALDALUR, Jose Antonio	Deba	1938-06-05	Zumaia	21	Zumaia
GIRARDO LOPEZ, Rogelio	Cadiz	1939-12-11	Zumaia		Zumaia
OSA IRAUNDEGUI, Juan Maria	Zumaia	1939-02-15	Deustuko kartzela		Zumaia
SAN MARTIN, Gregorio	Mendigorría	1936-09-22	Zumaia	42	Zumaia
ZUBIA AIZPURUA, Luis	Z umaia	1936-09-30	Donostia	40	Zumaia

benetako aurpegia. Etxeak husten hasi ziren, lapurretak egiten, eta herrian gelditu zirenak barregarri lagatzen. Emakumeekin egindakoak aipamen berezia eskatzen du. Ilea ondo-ondotik moztu eta bandera espainolak margo-tu zizkieten; komunak garbitu behar izaten zituzten...Sekulakoak eta bi egin zizkieten.

Hala ere, krudelkeria goia jotzeko zegoen oraindik.

Fusilatutak

Herria bereganatu eta lehenengo egunetan, miaketa asko egin zituzten frankistek. Gerran etsaiak zituzten errepublikarrak eta abertzaleak atzeman nahi zituzten. Atzeman eta atxilotu. Altxamendua hasi zenean ihes egin zutenak ez ziren asko izan. Horregatik, herrian ziren oraindik abertzale gehienak. Baita ezkertiar batzuk ere. Ez zitzairen zaila egin horiek atxilotzea. Makina bat preso hartu, eta aurrez eskuindarrak egon ziren Udaleko kartzelan sartu zituzten. Horrekin konforme ez, eta ankerkeriarik ankerrenetakoa egin zuten preso gehienekin. Fusilatutak. 36ko irailetik aurrera hamaika zumaia-rrak, baina gure herriarekin era bateko edo besteko lotura zuten).

Kanporatuak

Gerra guztietan izaten dira. Munduko edozein bazterretan aurki daitezke. Kanporatuak dira. Erbesteratuak. Gerra hartan zumaia asko izan ziren neurri gogor hori nozitu zutenak.

Zumaia izan zen Euskal Herrian kanporatu gehien izan zuen herrietako bat. 1937ko otsaila eta martxoa bitartean egin zituzten kanporaketak. 256 zumaia izan ziren kanporatuak. Gehienak emakumeak eta haurrak ziren. Bizkaia aldera bidali zituzten, eta Kortezubiko bainu-etxean bildu zituzten guztiak. Bizkaiko frontera



Gudari zumaia-rrak daude argazki honetan. Asko izan ziren gerrara joan zirenak.

batean gerran ari zen senidea ikusteko itxaropenarekin ziren gehienak, baina asko eta askoren itxaropena itzali egin zen. Ez seniderik, eta ez ezer. Etsaiek Bilbo menderatu zutenean, 37ko ekainaren 19an, kanporatuetakoz batzuek atzerrira joatea erabaki zuten. Bizimodu berria eraiki nahi zuten. Gerra bukatu zenean, 1939an, kanporatuetakoz batzuk Zumaia itzuli ziren. Ez zieten harrera ona egin frankistek. Kanpoko herriren bateko gaitzen bat ekarriko zuten "beldurrez", Benefizentziako Egoitzaren Ospitalean berrogeialdian jarri zituzten.

Zumaia izan zen
Euskal Herrian
kanporatu gehien
izan zuen herrietako
bat.



Gerrara joan ziren zumaia-rrak ere asko izan ziren. Batzuk Eusko Gudarosteko batailoi-tan aritu ziren. Beste batzuk, berriz, Euskal Itsas Armadan.

Euskal Itsas Armada

Arrantzurako eta beste lan batzuetako egindako ontziak, gerrarako prestatu behar zituzten euskaldunek. Besterik ez zegoen. Horietako zazpi ontzi Zumaian egindakoak ziren: Goizeko Izarra eta Iparreko Izarra bouak; eta Maria Angeles, Julito, Marcos, Delfina, eta Salvador minaketariak. Euskal



ontziek bi lan nagusi zituzten. Batetik, merkataritza eta arrantza babestu. Bestetik, itsaspeko minak kendu. Tartean-tartean, hala ere, frankisten armadarekin topo egin zuten. Gertaera ospetsuena eta gogorrena Matxitxakoko Guda izan zen. Bi egun iraun zituen. Lehenengoan, Galdames merkatal ontzia babesten ari zen Gipuzkoa boua ia hondoratu zuen Canarias izeneko ontzi frankistak. Bigarren egunean, Galdames ontzia babesten ari ziren Nabarra eta Donostia bouen kontra jo zuen Canarias ontziak. Ondorio larriak izan zituen eraso hark. Nabarra boua hondoratu zen, eta bertako marinel gehienak hil.

Gertaera latz horrek mendekua izan zuen handik urtebetera. Ontzi errepublikarrek Canarias ontziaren bikia zen Baleares ontzia hondoratu zuten. Bi zumaiarrek bertatik bertara bizi izan zuten gertaera hori, Francisco Elosuak eta Erramun Manterolak.

Gerra 1939ko apirilaren lehen bukatu zen ofizialki. Ez dago esan beharrik nortzuk izan ziren garaile.

Gerra osteko urteak

Gerrak berarekin dituen ondorio larrienak pixkanaka bukatzen joan baziren ere, gerra ondorengo urteak ez ziren gozoak izan euskaldunontzat. Zumaian bertan ere arazo asko izan zituzten frankistekin. Gerra bukatu eta ia 40 urte luzez nozitu behar izan zituzten zumaiarrek diktaduraren ondorio negargarriak.

EUSKAL ITSAS ARMADAN PARTE HARTU ZUTEN ZUMAIARRAK

Izena: AMAS URBIETA, Jacinto

Kidetza: EAJ

Zeregina: Miren Koldobike izeneko kanoa automobileko mekanikari (1936ko abendua-1937ko apirila). Berabille izeneko kanoa automobileko mekanikari (1937ko maiatza-ekaina). Epailla SL izeneko kanoa automobilean itsas karabineroen zerbitzura (1937ko ekaina).

Izena: AMAS URBIETA, Jose Maria

Kidetza: EAJ

Zeregina: Miren Koldobike izeneko kanoa automobileko bigarren mekanikari (1936ko urria-1937ko martxoa). Berabille izeneko kanoa automobileko mekanikari (1937ko martxoa-ekaina). Txepetx ontzi laguntzailean itsas karabineroen zerbitzura (1937ko ekaina-uztaila).

Izena: AMAS URBIETA, Ruperto

Kidetza: ELA

Zeregina: Itsas armadaren Getxoko kuarteleko marinel (1937ko ekaina). J.L. Diez izeneko ontzi destruktoarearen zerbitzura (1937ko ekaina-uztaila). D-I6 (Anthon Mari) minaketariaren zerbitzura (1937ko uztaila-iraila).

Izena: EGAÑA EGAÑA, Jose Agustin

Kidetza: EAJ, ELA

Zeregina: Gasteiz izeneko bouan zaindari (1937ko urtarrila-maiatza). D-I9 (Ibai Ederra) eta D-II (Arco) minaketarietan marinel (1937ko maiatza-uztaila).

Izena: ELOSUA ZUBIMENDI, Francisco

Kidetza: EAJ

Zeregina: Gipuzkoa izeneko bouan mutil (1937ko otsaila-apirila) eta marinel (1937ko apirila-abuztua).

Izena: GOROSTOLA ETXABE, Ignacio

Kidetza: ELA

Zeregina: Epailla izeneko laguntza ontzian parroi (1937ko martxoa-maiatza). Gasteiz izeneko bouan patroiz (1937ko uztaila-abuztua).

Izena: MANTEROLA ANTIA, Vicente

Kidetza: EAJ, ELA

Zeregina: Itsas Armadako artillero Getxon (1937ko maiatza-ekaina). Ciscar izeneko laguntza ontzian kabu (1937ko ekaina-urria).

Izena: MANTEROLA GALDONA, Felipe

Kidetza: EAJ

Zeregina: Miren Koldobika izeneko kanoa automobilean marinel (1936ko abendua 1937ko apirila). Angel de la Guarda (1937ko apirila-ekaina) eta San Ignacio (1937ko uztaila-iraila) laguntza ontzietan bigarren mekanikari.

Izena: MANTEROLA GALDONA, Luis

Kidetza: EAJ

Zeregina: Sestaoko konponketa tailerreko marinel (1937ko maiatza-ekaina). San Ignacio izeneko laguntza ontziko marinel (1937ko ekaina-iraila).

Izena: MANTEROLA GALDONA, Ramon

Kidetza: EAJ

Zeregina: Nabarra izeneko bouan sukaldari laguntzaile (1936ko abendua-1937ko otsaila). Gipuzkoa izeneko bouan mutil (1937ko otsaila-ekaina). Ciscar izeneko laguntza ontzian marinel (1937ko ekaina-urria).

Izena: URRESTILLA ZUBIA, Ramon

Kidetza: EAJ

Zeregina: D-4 (Mourisca) minaketarian koipeztatzaile (1936ko abuztua-1937ko azaroa).

Iturria: Erkibe Kultur Taldea.

*Euskal Itsas Armadan ibili
ziren zumaierretatik bizirik
dagoen bakarra da. Itsasoko
gerra bertatik bertara bizi
izan zuen.*

“Gu lehorrekoen aldean ondo ibili ginen”



Etxean hartu gaitu Erramunek, eguneroko irteera egin aurretik. Memoria ikaragarria duela erakutsi digu. Orain 70 urteko kontuak atzo goizekoak bezain ondo gogoratzen ditu.

Gerra hasi zenean zertan aritzen zinen?

Erramun Manterola: Orduan langa-bezian ginen. Gu itsasoan ibiltzen ginen, etxeko ontzian. Garai hartan, ordea, lanik gabe ginen.

Zumaian nola bizi izan zenuten gerra hasiera?

Erramun: Horrelako egoerak bizi ohi diren bezala. Soldadu jantzitako batzuk azaltzen hasi ziren, tropak zetozenaren seinale. Bazetozela esaten zuen jendeak, eta horrela.

Gero gaiztotu zen giroa. Zumaia asko gerrara joan zineten. Zu beste bi anaiekin joan zinen. Etxean senideek nola hartu zuten egoera hori?

Erramun: Gogorra izan zen. Gerra zela-eta, gazteenok aurrera, frentera joan izan behar genuen. Hori horrela zen, eta zetorren bezala hartu beharra zegoen. Asko Zumaiaitik bidali zituzten, baina gure aita-eta hemen gelditu ziren.



Elkarren berri izaten al zenuten?

Erramun: Zaila zen. Baina behin, laguna nuen ondarrutar makinista batek, hamabost egun lehenago Zumaian egon zirela esan zidan. Aita eta senideak ondo zeudela esan zidan. Eskerrak hari. Bestela ez zegoen elkarren berri izaterik. Ezta pentsatu ere. Gero bai, gerra bukatu zenean, anaia Frantzian zegoen, eta ni Cartagenan, eta etxeok kartak bidaltzen zizkiguten.

Gerra garaian, ontzi askotan ibilitakoa zara. Non hasi zinen?

Erramun: Hasi "Nabarra" bouan hasi nintzen. Gero "Gipuzkoa" boura pasa ninduten. Orduan izan zen Matxixakoko borroka hura. Gero "Ciscar" destruktorean ibili nintzen, baina hura hondoratu zutenean, Frantziatik barrena Cartagenara joan nintzen.

tzen. Han "Libertad" kruzeroan ontziratu ninduten. Hantxe bukatu nuen gerra.

Ontzietan zein lan egiten zenituen?

Erramun: Erizaina nintzen. Borroketan zauritzen zirenak hartu, eta eritegira eramaten nituen. Horixe zen nire lana. Bakoitzak bere lana zeukan. Bere destinoa. Batzuk kanoietan egoten ziren; beste batzuk torpedotan.

"Fuego, fuego eta fuego. Besterik ez genuen pentsatzen"

Itsaso zabalean frankisten ontziak ziren "Canarias" eta "Balears" bezalakoak parez pare ikusita, zer pentsatzen zenuten?

Erramun: "Fuego, fuego eta fuego". Besterik ez genuen pentsatzen. Ez zegoen beldurrik izaterik. Gero, gauzak okertzen zirenean, nola ihesi pentsatu behar. Baina bitar-

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



Ezkerretik eskubira: Felipe, Luis eta Erramun Manterola anaiak. Hirurak aritu ziren Euskal Itsas Armadan.

tean “fuego”. Pentsa ezazu, haien ontziak oso ondo presatutakoak zirela. Gureak, berriz, ahal zen moduan egingakoak ziren.

Matxixkakoko borroka ezaguna bertatik bertara bizi izan zenuen.

Erramun: Bai, han ginen. Nabarra boua hondoratu ziguten. Orduan Gipuzkoa bouan nintzen. Galdames izeneko ontzia babesten ari ginen. Itsaso txarra zen. Bilbo parera iritsi ginenean, frankisten “Canarias” ontzia guregana zetorrela ikusi genuen. Parean jarri zitzaigun, eta “bum, bum, bum”. Bost hil zizkigun. Ontzi guztia sutan genuen.

“Mina bat jota
hondoratu zela
zabaldu zuten
frankistek.
Gezurra”

Komandanteak erabaki zuen barkua onik atera behar zela. Bere asmoak bete, eta barkua eta gu, denok, onik atera ginen. Han dago Matxixakon orduan hildakoen aldeko monumentua. Orain ezin dut joan, baina lehen urtero joaten ginen omenaldia egitera. Neuk jartzen nuen lore sorta.

Handik urtebetera mendekua hartzeko aukera izan zenuten. Orduan ere han zinen.

Erramun: Bai. Mediterraneoan izan zen. “Balears” ontzia hondoratu genuen. 780 hil ziren. Denak beraienak. Guretzat arrakasta handia izan zen. Baina haiek dena gezurra esaten zuten. Mina bat jota hondoratu zela zabaldu zuten frankistek. Gezurra. Guk hondoratu genuen.



Gerrako egun bat nolakoa zen itsasoan?

Erramun: Egun normalik ez zen. Borroka gutxi izan genituen, baina egun normalik ez genuen ezagutu. Gu lehorrekoen aldean, ondo ibili ginen. Lehorrekoek gehiago sufritu zuten. Hori bai, guk arrisku latza genuen. Hondoratuz gero, adios.

Gerra bukatuta gero, zer?

Erramun: Guri gezurra esan ziguten. Deliturik egin ez zuena etxera bueltatzeko moduan izango zela esan ziguen.



Bou Nabarra.



Bou Gipuzkoa



Euskaldunen armadak erabiltzen zituen ikurrak.

ten. Gezurra. Rota aldera eraman gintuzten, kontzentrazio eremu batera. Han egon ginen martxoaren azkenetik azaroaren aurreneko egunak arte. Gero Cadiza bidali gintuzten, fundizioko tailer batean lan egitera. Han oso ondo egon ginen. Ondo portatzen ginen nonbait, eta egunean duro bat ematen ziguten. Gero, sanpedroetan etxera etorri ginen. Handik hilabete batzuetara, martxoan, Ferrola

ERRAMUN MANTEROLA

Erramunek 88 urte ditu. Arrantzalea zela piztu zen gerra, eta Euskal Itsas Armadan aritu zen. Orain lasaiago bizi da. Osasuntsu.



joateko agindua jaso nuen, “ Consejo de guerra” egin behar zidatela-eta.

Nolatan deitu zizuten epaiketa hartara?

Erramun: Itxura denez, denuntzia faltsua egin zidaten. Frankistak 36ko irailaren 21ean Zumaian sartzerako ni alde eginda nengoen. Lekeitiora joan ginen. Irailean ni Zumaian ikusi nindutela leporatu zidaten. Baina denuntzia faltsua izan zen. Hala ere, Ferrola joan, eta 20 urteko espetxe zigorra izateko arriskua izan nuen. Azkenean, neure diruarekin abokatu bati ordaindu, eta epaiketan libre utzi ninduten.

Etxera etorrita, nolako egoera zegoen Zumaian?

Erramun: Ona. Ez nuen arazorik izan, lehen aipatutako denuntzia kenduta. Hori bai, hiltzeko arriskua izan nuen. Haiek erraz hiltzen zuten. Atxilotu nindutenean, bat gehiago hilda ere, ez zitzaien asko inportako..

Inkesta berria

Gu zuen iritzi bila kalera irten gara orain arte. Hemendik aurrera zuen iritziak guri bidaltzeko proposamena egiten dizuegu. Hilero-hilero galdera bat egingo dugu. Erantzunak e-postaren bidez bidaltzera animatzen zaituztegu.

Hauxe duzue helbidea:
baleike@topagunea.com.

Bide hori erabili ezin baduzue, gure buzoian utzi erantzunak. Hemen aurkituko gaituzue: Juan Belmonte 29, behea. Zuen erantzunen zain egongo gara.

HAUXE DA HILABETE HONETAKO GALDERA:

Galipota ugari izan da Zumaiaiko hondartzetan uda honetan. Badirudi oraindik ere gehiago etorriko dela.

Zein da arazo beltz honi buruzko zure iritzia?

Erantzunak hurrengo zenbakian argitaratuko ditugu.

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404


- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia

STIOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROTEGIA

Urolo 2000, s.l.

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

Donostiko estropak

Bertsolaritza

Nerbio sistema

Dietetika


Izaga Garcia
Dietista

BADA DONOSTIAN bizi den zumaia bat, izen berezia duena, gainera: Manuel Olaizola.

Ez da, ordea, Uztapide edo haren senidea.

Liburu bat argitaratu zuen, 1991n, *Euskal senaren mintzoa* izenekoa. Olazoila'tar Manuelek hainbat bertso sorta jaso zituen liburuan, horietako batzuk Kontxako estropadei buruz. Hara zenbait ale, jatorrizko idazkeran:

Zumaia
Bertso Eskola



*Bazter bakoitzak badu
berekiko gaia:
Azkoitia'k pelotan
lasterketan Aia,
zarauztarrak zurgintzan
arrantzan Getaia
eta arraun jokuan
trebe da Zumaia*

*Jaungoikuaren nayak
iñork ez dakizki
Zumaia bere txandan
jarri zan lenbizi,
San Pedro eta Donosti
atzetikan larri,
Zierbanatarra berriz
zebillen urruti
ta iñork uste ez zuna,
Zumaia nagusi.*

*Danak beti nai dute
lenengo saria
gure jendia orretan
ajola gabia
estropa bukatuta
beraren irria:
"Temen gatzuk eta"
"Nun deu bazkaria?"*

*"Quinto" giñala beti
zioten auzuan
orain aintza gehiago
badegu buruan:
Lasarte Koronela,
Komandante San Juan
eta bere merituz
Zumaia kapitan
ta urte pare batian
Baleike Jeneral.*

ASPALDIDANIK erabil-tzen dira sendabelarrak urduritasu-na, lo gabezia eta antzerako gaitzak sendatzen laguntzeko.

Hauek, sintesi kimikoko psikofarmakoak ez beza-la, ez dute dependentzia edo bestelako ondorio-rik sortzen.

Gaur egungo gizartean, nekea eta estresa oso gaitz ezagunak dira, eta ekiditeko sendabelarren erabilpen egokia oso eraginkorra izan daiteke; hala ere, aipagarria da batzuetan norberaren elikaduran eta bizimoduan aldaketak egin behar izaten direla.

Ginseng-a: landare honen sustraia bizigarri eta tonifikatzailea da, eta batzuetan afrodisiako moduan erabiltzen da. Normale-an, anpoilatan hartzen dira.

Erramua: Tonifikatzaileak dira bere hosto eta loreak. Infusio-tan, bainutan edo erramu alkoholarekin igurtziak egin daitez-ke.

Oloa: Tonifikatzailea eta nerbio-erregulatzaile bikaina da. Bere malutak sopan edo esnearekin har daitezke, edo tantatan edo piluletan.

Baleriana: Lasaigarritzat ospe handia duen arren, ez da indar-tsuena. Bere hostoekin egindako infusioek zapore desatsegina dutenez, egokiena pilulatan hartzea litzateke.

Melisa: Lasaigarri arina da, ondo datorkigu buruko min edo digestioak hobetzeko. Infusio edo estraktuan har daiteke.

Pasio lorea: Umeentzat ere egokia den lasaigarria. Loak har-tzeko eraginkorra. Infusioan edo estraktuan har daiteke.

Santio belarra (Hiperikoa): Ansiolitikorik eraginkorrena da. Depresioarentzat ere erabiltzen da. Bere loreak infusio edo piluletan hartzen dira.

Ezkilorea (Tila): Urduritasuna eta lo eskasia ekiditeko apro-posa. Umeentzat oso gomendagarria da. Oro har infusiotan hartzen da.

Labanda: Nerbio sistema zaintzeko eraginkorra. Gaizki lo egi-ten duten umeentzat egokia da almoada azpian bere esentziak bustitako zapi bat jartzea.



Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Fimosia Sexualitatea

ZENBAITETAN gizonez-koak sarketa edo penetrazioa praktikatzera mina sentitzen du. Batzuetan min hori hain izaten da handia, ezen sarketa bera ere eragotz baitezake. Badakigu sarketa ez dela sexu harreman batean garrantzia handiena duena, baina oso zabala den menuko beste aukera bat da.



Ihintz Linazisoro

Zakileko glandea (zakil mokoa) oso leku sentibera da, eta horren bidez sentitzen da plazerra. Glandea azal batez babestuta egoten da eta uretra, soilik, gelditzen da agerian. Gizonezkoa jolas sexualen bidez berotzen denean, ordea, zakila handitu egiten da eta zakil mokoa bistan gelditzen da, gozatzeko prest.

Batzuetan, ordea, azal horren muturra oso estua izaten da, glandea ez da erabat irekitzen eta tentsio horrek mina eragin dezake. Mina sarketa praktikatzearan nabaritu du, masturbatzean oso araroa izaten da mina sentitzea. Min hori fimosi izeneko operazio kirurgikoaren bidez kentzen da. Operazio txiki bat da eta zakilaren azalean ebaki txiki bat egitea baino ez da. Ospitalean egiten da anestesia lokalaren bidez.

Hala ere, honen inguruan argipen bat egitea ezinbestekoa iruditzen zait. Zenbait lagun fimositik operatzera joaten dira, nahiz eta sarketa praktikatzearan minik ez hartu. Badirudi, zure inguruko lagunek egin badute, zuk ere operazio hori egiteko "beharra" duzula. Ba, ez, ez da horrela. Zuk sarketa praktikatzen duzunean, nahiz eta glandea bistan gelditu ez, berdin-berdin gozatzen baduzu, ez dago arazorik! Jakina da ahalik eta operazio kirurgikorik gutxiena egin behar direla. Beraz, zergatik operatu behar da norbait inongo minik ez badu? Batzuetan, badirudi, klonak izan nahi dugula.

Azkenik, aipatu beharra daukat ez dela gomendagarria haurrak fimositik operatzea. Batetik, oraindik sarketa ez dutelako praktikatuta, eta ez dakitelako minik sentituko duten ala ez. Eta bestetik, haurrak berak ere atzera eraman dezakeelako azala.

Beraz, badakizue, garrantzitsuena gozatzea da, eta ahaztu gainerako gutzia!

The balde Internet

● ● ● Itziartik behera zio! Ba ados. Baina gaurkoan bestera bateko TheBalde dake

sareko txokotxo hau estreinatzeko. Delako The Balde hau, Nafarroa aldetik datorren komunikazio proiektu baten pauso bat da. The Balde hau, bi hilabetetik behin argitaratzen duten aldizkari bat da, eta bere edizio digitala www.thebalde.net atarian sareratzen dute. Izenak dioen bezala, The Balde hau debalde jaso dezakezu hainbat eta hainbat denda eta tabernetan.

Ibón Aizpurua
Informatika
ingeniaria

Egia esan edizio digitala aldizkariaren kopia da, eta ez dakarkigu berri askorik; baina izan duten ausardia dela eta lerro batzuk merezi dituztelakoan nago. Paperean bezala pantailan ere begientzat erakargarria den aldizkaria da, diseinugintzan dabilen adituek parte hartzen duten seinale; irudi garaikide, apurtzaile eta zaindua du. Erabilitako hizkuntza du beste puntu interesgarria; hizkuntzak hobeto esanda, euskara eta ingelesa baitarabiltza elebitasun jatorrean. Euskal Herria eta mundu zabala gune berrizale batean biltzeko modu hoberik?

Edukiak aztertzean denetarik aurki genezake, berri laburrak, erreportaiak, gauza ximple eta xebleen kronikak, gomendioak, agenda... Aurkezteko modua eta eginiko aukeraketa dira ordea The Balderen web orriak dituen ezaugarri nagusiak. Berritort, gure inguruetan askotan ikusten ez den diseinupean moda, artea eta orotariko kulturen hizkuntza bereziak konplexurik gabe erabiltzen asmatu dute. Gainera, agenda, gomendio eta kritiken atalera baldin bagoaz, betiko komunikabideek planifikatutako ibilbidetik irteko parada izango dugu, eta prefabrikatutako musikatik eta pelikuletatik beste norabait jotzeko proposamenak aurki genitzake. Webgune ezberdin batekin egingo duzue topo sarean, eta badakizue muxutruk, dohan... alegia, TheBalde.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Aseguruak
Finan Administrazioa

bonin aguirre 4. behe
20.750 zuzaina (guzuzkoa)
E-mail: razcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 943 861670

Alberdi Ilak Enbili irabazi Euskal Herriko Txapelketan

Zumaian jokaturako partidak eman zion hasiera Banakako Txapelketari

Bi zumaia aurrez aurre. Luis Mari Alberdi aurrelaria, eta Gotzon Enbil atzelaria. Jende asko bildu zen Odieta pilotalekuan bi herritarren arteko lehia ikusteko. Gotzon hobeto hasi bazen ere, Luis Mari partida erdirako aurrea hartu zion. Hortik aurrera, aurrelaria nagusi. Bien arteko aldea handituz joan zen partidak aurrera egin zuen ahala. Azkenean 30 eta 20 Alberdi II irabazle. Partida ez zen oso polita izan, baina tarte-tarte tanto ikusgarriak jokatu zituzten bi pilotariek. Emaiza honekin Luis Mari Alberdik aurrera egin du Euskal Herriko Txapelketan; Gotzon Enbilek, aldiz, agur esan behar izan dio txapelketari.



Bi bandera Telmo Deunek



Ondarroako eta Lekeitioko estropadetetan lortu dituzte denboraldiko bi garaipenak.

Kontxara sailkatzeko estropada izan zen aurtengo azkena zumaiaurrentzat. Bukatu dute denboraldia. Bi bandera irabazita bukatu ere. Ondarroan eta Lekeition erraz nagusitu zitzaizen gainontzeko traineruei Telmo Deuna. Federazio Ligan aritu dira aurtun zumaiaurreak. A eta B mailako estropadetan parte hartu dute. Arraunlarien esanetan, berandu lortu dute arraunketa egokia. Horrexegatik motza egin zaie denboraldia. Hala ere, bi estropada irabazita, gustura egoteko moduan dira. Orain, ondo merezitako atsedena hartuko dute. Gero hasiko dira datorren denboraldia prestatzen.

Bi zumaiaurre Kontxan

Zumaia sailkatu ez bada ere, herriko bi arraunlari ditugu estropada ospetsuenean. Iñaki Unanue Pasai Donibanen, eta Gaizka Gaztiain Orion.

Ilusioz gainezka joan arren, Astillerok lehenengo igandean lortutako aldeari esker, bi zumaiaurrek ezingo dute Kontxako Bandera irabazi. Bigarren posturako, ordea, borroka estua izango dute Iñakik eta Gaizkak. Bost hautagai daude Astilleroren atzetik sailkatzeko, horien artean, Pasai Donibane eta Orio. Telmo Deuna bertan ez dagoenez, zumaiaurre bat Kontxan bigarren izatea polita litzateke. Konformatzen ez dena...



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

Y
i
N



Y
A
N
G

GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Oier Aizpurua 2004ko olinpiadetarako leku bila

Estatu Batuetan, Atlantan, jokatzeko ari den Munduko Txapelketan da piraguiста zumaiaarra. K-4 ontziarekin 200 eta 1.000 metroko probetan parte hartuko du.

Helburu nagusi bat du Oierrek. Dominaren bat lortzeaz gain, 2004ko Olinpiar Jokoetan izan nahi du. Horretarako 1.000 metroko proban sei aurrenetan sailkatu beharko dute.

Oierren esanetan, zaila izango da lehen sei postu horietan sartzea. Aurten jokatuako estropada bakarrean 6garren izan ziren, baina ontzi guztiak segundo baten barruan daudela gogorazten digu behin eta berriro.

Domina lortzeko aukera 200 metroko proba motzean dute. Hala ere, proba motza denez, edozer gerta daitekeela dio Oierrek.

Helburu horiek denak lortzeko gogor entrenatu behar izan dute. Asturiasko Navia herrian eta Sevillan egin dituzte egonaldiak. Ea Atenaseko Olinpiar Jokoe-tan izateko txartela lortzen duen Oierrek..



Maite Amilibia eta Maitane Atorrasagasti Munduko Txapelketan



Valladoliden irailaren 27an eta 28an izango den txapelketan K-2 ontzian izango dira bi zumaia gazteak. Proba gogorra izango dute biek. Lasterketarik luzeena. Maratoian aritu beharko dute Maitek eta Maitanek. Guztira 22 kilometro.

Lehen aldiz izango dira Munduko Txapelketan parte hartzen. Horregatik, helburu bakarra dute. Ikasteko gogoarekin doaz. Ahal duten posturik onena egiten saiatuko direla esan digute, baina helburu nagusia ikastea da.

Handik itzulitakoan kontatuko dizkigute bertan bizi izandakoak.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058


ZUBIAK

Zubiek garrantzi handia izan dute eta izaten jarraitzen dute Zumaiaiko komunikazio bideetan, batez ere Hiribildua osatzen duten lurren ezaugarri geografikoen ondorioz

Baina hala ere, Zumaia auzoekin lotutako zuten edo bide sare nagusira irislea ahalbidetu-ko zioten zubiak ez ziren Os0 berandu arte egin. Horrek eragiten zituen arazoak pasaje untziari esker konpondu ziren, Zumaia iritsi edo bertatik irten nahi zutenak portuaren alde batetik bestera garraiatzen baitzituen.

Harresiz inguratutako Hiribilduko eremutik ibaiaren beste aldean zeuden auzoetara joatea ahalbidetu zuen Iehenengo zubia eraikitze beharra ez zen sortu pasaje umzia gaizki funtzionatzen hasi zelako, ez eta akats edo gabezien ondorioz ere Portuan egin zen lehen azpiegitura obraren emaitza izan zen 1794ko Erribera Berrien saneamenduarena alegia Urte hartan eraiki zen Narrondo ibaiaren gaineko Iehen zubia eta portuari irabazitako lur berriak Zumaiaiko herrigunearekin lotzeko egin zuten Laskurain maisu lur neurtzaiteak hiru diseinu aurkeztu zituen bata zurezkoa, bestea zintzilikaria eta bestea harrizkoa, eta horietatik ondorengoa egitea erabaki zen:

“hamar oineko zabalera eta muturrak kare eta kantalezko hormaz sendotuta izango dituen zurezko zubia Zubiaren egitura Os0 ongi berdindu behar da lotura guztietan eta hormek oinarri sendoak izan behar dituzte. Beharrezkoa bada, paldoen gainean eraikiko dira..”



1863. urterako Narrondoko Zubia Os0 egoera txarrean zegoen eta derrigorrez konpondu beharra zegoen Baina auzi horrek gatazka izugarria eragin zuen Zumaiaiko Udalaren eta Erribera Berrietako akziodunen artean, obrak ordaintzea nori zegokion aztertzen hasi zirenean 1794. urtean sinaturiko salerosketa eskrituren testuari egin zitzaizkion interpretazio desberdinen ondorioz sortu zen arazoa eta liskarra 1877. urtera arte luzatu zen, data horretan gatazkari amaiera emateko tarteko konponbide bat hartzea erabaki baitzen ordutik aurrera zubiaren konponketak eta mantenimenduak eragiten zituen gastuak Erriberetako akziodunek eta Udalak erdibana ordainduko zituzten.

Narrondoko Zubia konpontzeko lanak amaitu eta urte gutxira

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



Basel Auzoetara, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

AITA MARI
kafetegia



Julio Beabide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia

Arkupe



Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



karlisten tropek herriko beste zubi bat bota zuten "Deba igaroz, Muniasorotik Sasiolako zubira" zeraman errepideko Oikiako zurezko zubia. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz eraitsi zuten, baina badakigu berreraikuntza tanak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu zituela eta 1876ko azaroan Antonio Kortazar jaunak berreraikuntza obren exekuziorako baldintza plegua eta kobrezko 51.254 erreal eta 20 marabediko aurrekontua idatzita zituela. 1884ko hamarkadaren erdi aldera, kostako errepidea zabaldu eta

Urola ibaiaren gaineko Burdinazko Zubia eraiki zen. Eraikuntza horrek ikusmin handia eragin zuen zumaiarren artean, jakina baitzen Urola ibaiaren nabigagarritasuna etenda gera zitekeela eta Zumaia eta Urola Bailararen arteko komunikazio ardatz nagusietako bat desagertu egingo zela. Hori guztia kontuan izanik, 1883. urtean Zumaiaiko Udalak ondorengo eskaera egin zion Gipuzkoako Aldundiari:

"goi aldean kaia duten industrietarako 0s0 baliagarria izango den eta masta luzeak dituzten untziak goiko aldera igarotzea ahalbidetuko duen arku birakari bat eraikitzea"

"Zumaia Historia" liburutik hartutako pasartea.

Emilio Perez Elektrogaikuen salmenta eta konponketa ADI Polvita Eteazarreta, 23 20750 ZUMAIA GIPUZKOA tel. fax. 943 143 415 E-mail: adiele@euskalnet.net	ad AUTOS ZUMAIA Urola plaza 3-5 Tel: 943 86 14 85	Kresala Taberna Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23
<i>ileapaindegia</i> I Z E T A Urumea, 6 Tel. 943 862083	LEIZE taberna Juan Belmonte, 6	taberna JUSTA eguneroko bazkariak Erribera kalea, 20

Ohitura onekin jarraitu behar dela eta, hilero ipuin bat argitaratuko dugu. Ipuin hau Josu Waliñorena da. Marrazkiak, Ander Hormazurirenak.

Gaur ez da etorri

G

aur ez da etorri.

Eta hemen nago ni, etxeko leihotik begira. Zain.

Uda bero honetako freskuraren bila etortzen da,

gauero. Gure etxearen aurrez aurre dagoen aulkian

eseri, eta hortxe egoten da, lasai, ikusmiran. Iluntzeko freskuraz gozatuz.

Ingurura begira.

Gauero ikusten dut nik ere. Leihotik. Nire freskagarria den

dutxarako bidean noala begiratzan diot lehen aldiz. Bera ere

begira izaten dut une horretan, eta, gauero, elkar agurtzen dugu begiradarekin. Nik behintzat hala egiten dut.

Eskuak magalean izaten ditu. Gurutzatuta. Begirada, ezker-

eskuin, mugimenduan. Eta gorputza geldirik. Ez du gorputzik

mugitzen aulkitik altxa, eta, etxera joan artean. Nik dutxarako

bidean hala ikusten dut, eta dutxatik bueltan berdin egoten da.

Egia esan, lehendik ere ezaguna nuen. Behin baino gehiagotan

ikusi dut lanetik bueltan natorrela, Orio parean Udaltzainak aurrera egiten noiz utziko zain nagoela. Bera, bere lankideekin egoten da, haien lantokia eta trenbidea banatzen dituen errepidea zeharkatzen. Eta gu bitartean, beraiei begira.

Orduan ere, lasai joaten da. Eskuak alboan eramaten ditu, zintzilik, eta bere pausuan aurrera ez du inorekin hitz egiten. Begira egoten da. Ni bezala. Autotik so egoten natzaio, etxera eramango dudala esango banio zer gertatuko zen pentsatzen dudana bitartean.

Bera ere, pentsakor egoten da gure etxe aurreko aulkian freskura hartzen dagoenean. Ez dirudi ezer berezia pentsatzen duenik. Ezta ametsen zorabioan galduta dabilenik ere. Esango nuke gauaz gozatu besterik ez duela egiten.

Ni bai, ordea. Burua astinduz egoten naiz dutxan, bere irudia kendu ezinik. Zalantza hauek guztiak izaten ditut bueltaka: zer ote du buruan? Zertara ote dator gauera? Nor da? Galderak, eta galderak.

Dutxatik irten, eta liburu bat eskuan dudala ohera noala ikusten dut bigarren. Leihoa ixten dut, ohera sartu aurretik, liburua almoada gainean utzita. Ez zait gustatzen hori egitea, ukazioaren sentsazioa dut, berari uko egingo banio bezala. Bera begira izaten dut une horietan, eta ni ere begira geratzen natzaio. Elkarren begiak lotu, eta, orduan ere, "agur" esaten diot nik begiradarekin. "Amets onak izan ditzazula, hemen, aulkian, etxean, nonahi zaudela." Hori guztia esan nahi diot gauero begirada bakarti batekin, eta berea irakurtzen saiatzen naiz. Baina ez dut ezer ikusten. Berdin gertatzen ote zaio berari?

Gaur, ordea, ez da etorri.

Lehen buelta egin dut leiho ondotik, eta bere aulkia hutsik zegoen.



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





ZE LETUA

Hasieran ez naiz ausartu dutxara joaten, sakrilegio bat iruditu zait. Egunerokoa hausten nuela sentitu dut. Baina nire buruarekin haseretu, txorakeriak utzi, eta dutxara joan naiz.

Ez naiz lasai dutxatu. "Non ote dago?" galdetu diot behin eta berriz nire buruari, "Zerbait gertatu ote zaio? Lanean hasiko zen? Nirekin haserre dago? Gaur ere bero dago, baina ez da etorri".

Dutxatik atera, eta lasai lehertzera behartu dut nire burua. Presa daukat gorputzean, leihora hurbiltzeko irrika, baina berriz ere nire gauzak betiko moduan egitera behartu naiz. Ez diot nire irrikari aurre hartzen utzi nahi izan, eta amaitu dudanean, liburua lasai

hartuta betiko moduan

inguratu naiz leihoa

ixtera, bihotza

taupaka.

Baina bera falta


da. Ez dago.

Oraindik.

Eta ni hemen nago. Liburua beti bezala almoda gainean utzi, baina leihoa ixtera ausartzen ez. Begira nago, gaueroko ukazioaren zain. Leiho aurreko aulkia hutsik dago, eta nire barruan ere zerbait falta denaren susmoa daukat.

Begira nago, ikusmiran, ezker-eskuin begira.

Bere zain.



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Azkue Autoak


Estazioko kalea, 19 Tel: 943 861433
Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861391



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA



Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAIA

AEBko indarkeriaz gogoeta

BOWLING FOR COLUMBINE gizarte gaixo baten erradiografia perfektua da; izan ere, dokumentalak ezin hobeto islatzen du Ameriketako Estatu Batuetako gizartearen nolakoa den: hedabideek ezarritako beldurraren kulturak ikaratua, gobernuak herria zarpaildu eta artalde eskizofreniko bihurtu nahirik, leporaino armatua, betiere erne errealtatean ez dauden kanpo--mehatxuen aurrean...

Michael Moore Estatu Batuetako ezker berriaren erreferentzia garbia da. Dokumental honetan Ameriketako Estatu Batuetan barneratuko gaitu, mikrokosmos zoro horretan, eta pelikula-ko sekuentzia bakoitzari ironia eta egia dario. Aurreko dokumental batean, Roger and me--n, Moorek bere jaioterrian, Flint-en, zer gertatu zen erakutsi zigun, General Motors-ek herritik alde egin zuenean herria nola gainbehera etorri zen; han bezala, hemen ere

Moore, kamera eta umore--sen zorrotza hartuta, hor sartuko zaigu korporazio handietako bulegoetan eta Charlton Hestonen etxean, betiere honelako galderei erantzunak aurkitu nahian: zergatik hiltzen dira 11.000 lagun baino gehiago Estatu Batuetan, urtero, su--armekin? Zergatik bultzatzen dute Estatu Batuek politika gerrazalea?...



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Jaungoikoa non ote?

CIDADE DE DEUS 60ko hamarkadan eraikitako Rio de Janeiroko auzoa 80ko hamarkadatik aurrera Brasil osoko lekuri arriskutsuena bihurtu zen. Langabeziak droga-trafikoa indartzea ekarri zion eta Meirelles zuzendariak auzo horretako argazki zehatz eta gordina egitean bide zailena aukeratu du: erruki faltsuan erori gabe eta ohiko salaketa-filma egin gabe. Zer lortzeko? Ikusleok kontura gaitetzen zer egoera ankerretan bizi diren "haur asasinoak" deitutakoak. Horretarako, bi haurren istorioaz baliatuko da: bata, Buscapé, egoera odoltsu horretatik irten nahi duena; bestea, Ze Pequeno, egoera odoltsu hori aprobetxatu nahi duena aberasteko. Bi istorioak elkarri lotuta doaz erritmo oso bizian eta zuzendariak ez digu ezertxo ere ezkutatu. Premia gorria eta heriotza nagusi diren auzo honetan haur eta mutikoen talde-armatuek dute agintea, biziak ez du

deus balio, inork ez du eskrupulu moralik aldamenekoa tiroz hiltzeko, agintariak ez dute ahalmenik eta adorerik egoera hori errotik mozteko eta abar. Honelakoak azaltzean zuzendariak errealitate gordina aurpegira botako digu gure patxadatik esna gaitetzen. Film miresgarria, gordina, txundigarria, gogorra eta ederra bere ilunean. Fernando Meirelles mundu guztia aho zabalik utzi duen zuzendaria bihurtu da.



Ciudad de

Dios

(Cidade de

deus, Brasil,

2002),

Zuzendaria:

Fernando Meirelles

Aktoreak: Alexandre

Rodrigues, L. Firmino

da Hora, Phelipe

Haagensen.

Urriak 16,

osteguna, 22:30ean



AUTO-ESKOLA



ZUMAIÁ

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

tientvan!!

baleike

ERAKUSKETA: Nabarra Boua. Matxitxakoko guda.
Euskal Itsas Armadari buruzko erakusketa Alondegi Zaharrean.
Irailaren 17tik urriaren 5era, Itsasoko gudan izan ziren zumaierren gertaerak ezagutzeko aukera izango dugu.



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIJA

CORO PRIETO
Esteticista

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK

BANAKAKO AURREKONTUAK

Computzeko eduzia inataleko ileak kentzeko sistema berria aurkeztu dugu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
"Luz pulsada (fotodepilazioa)"
- Laser ND-YAG (+10 J).
Laser ND-YAG-aren indarra eta aldakortasuna argiaren bitartez egindako depilazioarekin "Luz pulsada"-rekin elkartertzen da, ahalik eta tratamendu azkarrena eta eraginkorrena lortzeko.

Bonifacio Etxegarai plazatxoan z/g. Tel: 943 861 322

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

**OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO
BAIMENAK LORTZEKO**

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara

Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoa: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) **ZARAUZ**
Telefono zenbakia: 686 954 299



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ekin **ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK**
/elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea 18 Behe Tel/Fax: 943 143097
20.750 Zumaia ekin@ekin.es

Istalatzaile/banatzaile ofiziala



ert **informatica**

tresna digi
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95





Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Mego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santxo auzoa40